



PANTAILA TXIKIAN

Gaizka IZAGIRRE BROSA

Arkitektura eta telesailak

“Arkitekten”

FILMIN

Telesail honen “erruz” aukera-tu dut gai hau. Gustatu ez zai-danarekin hasiko naiz: motze-gia da, eta 80 minutuko film bat izan zitekeena lau ataleko telesail formatuan zabaldu izana ez dut oso ongi ulertu. Hori aipatuta, Berlingo Zine-maldian telesailik onenaren saria eskuratu zuen ekoizpen norvegiar hau oso interesgarria irudituz zait, kontatzen duenagatik, baita azaltzeko moduagatik ere. Hirietako bi-zimodua errotik aldatu den gi-zarte bat aurkezten du; ia inork ezin du etxebizitza bat erosi, eta dirudunak salbu, gai-nerakoek kalean edo zokoetan bizi behar dute. Etxebizitza es-kasia eta automatizazioa pun-tu gorenean direla –droneak txakurrak paseatzen, adibi-dez–, Julie arkitektoak ideia ausarta proposatuko du: lur-peko aparkaleku hutsak bizite-gi eraikin bihurtzea.

Ez nuen sekula imajinatuko arkitekturarekiko interes berezirik izango nuenik. Are gutxiago, gaiari buruz idatziko nuenik, baina berriki ikusi dudana «Arkitekten» telesailak behar hori sortu du nigan. Lasai, ez naiz eraikuntza motei buruzko teoria aspergarriez ariko; gaia nire eremura eramanez eta arkitektura telesailen munduan nola jorratu den aztertzen aritu naiz. Honako hauek, topatu ditudan izenburu interesgarrienak.

Etorkizun distopiko batean girotuta dagoen arren, bertan ikusten diren gertaera ugari ezagunak egingo zaizkizue. Tonu satirikoa erabiliz, gizarte hartzen ari den norabide kezkarriari buruzko galdera sakonak egiten ditu eta gustatu-tuko litzaigukeena baina gertu-go dagoen etorkizun bel-durgarria islatzen du. “Sci-fi” ekoizpen mota hauetan ohi-koa dena baino aurrekontu es-kasagoa izan duten arren, ezin hobeto zukutu dituzte baliabi-deak ekoizpen diseinu futuris-ta eta dotorea gauzatzeko. Iku-si beharrekoa.

“The Imagineering Story”

DISNEY+

Tranpa apur bat eginez jarrai-tuko dut tarteaz, ez baitakit oso ziur izenburu hau arkitektura-ren eremuan ofizialki sartu daitekeen, baina honatx go-mendioa. Disney-ren mun-duaren fanatikoa bazara eta diseinuaren eta arkitekturaren zale amorratua, “The Imagi-neering Story” da ikusi behar duzun hurrengo telesail doku-mentala.

Sei ataletan, Walt Disney Kaliforniako Disneyland par-kea eraikitzen ari zela eraman zuen istorioan barrena bidaia egin-go duzu. Atal horietan, Dis-ney Imagineering-en kame-ren atzealdea edota parke eta resorten proiektu arkitekto-nikoak diseinatu eta garatze-ko zentroa ezagutuko dituzu, besteak beste. Zenbait artista eta ingeniariaren eskutik, munduko parke tematiko gar-rantzitsuenaren atzeko sormen-prozesua ere ezagutuko duzu. Parke hauek bisitatu ditugunontzat polita da ikus-tea zer nolako lana dagoen horren atzean. Bestalde, kon-tuan hartu beharreko zerbait: dokumental hau Disney-k eginga dela eta Disney-rentzat.

Zer esan nahi du horrek? La-nari ez diola balioa kentzen, baina ez duzula neutraltasun zipitzik topatuko. Zenbait unetan hartutako erabakien inguruko autokritika apur bat ere ikus daitekeen arren, na-bari da lan honek erakusten duen guztia “politegia” dela eta alderdi negatiboak ez di-rela apenas azaltzen.

“BAUHAUS: DIE NEUE ZEIT”

FILMIN

Bauhaus Alemaniako arte, di-seinu eta arkitektura eskola ezagun bat izan zen. Sei ataleko serie hau haren sortzaileen arteko harremanari buruzkoa da. Bauhausen emakumeak eta gizonak berdinean tratatzen zituztela zabaldu den arren, telesailak zalantzan jartzen du hori hasieratik. Paul Klee, Vasi-ly Kandinsky, Mies Van der Rohe... izen ezagunak pasatu ziren hortik, bai irakasle gisa





bai ikasle gisa aritu zirelako. Eta emakumeak? Eskola horretan edonork eman zezakeen izena, eta zenbait emakumek hori bera egin zuten, baina orduan mugak etorri ziren. Izan ere, paradoxikoki, Walter Gropius lehen zuzendariak sexuen arteko berdintasuna aldarrikatzen zuen arren, eskolari historikoki lotutako izen gehienak gizonenak izan dira. Emakumeak salbuespen gisa aipatzen dira.

Sorreran, estatutuen arabera, emakumeak onartzen zi-

ren, eta berritzailea zen hura, izan ere, ordura arte, arte eskoletan soilik onartuak izaten baitziren, baina arkitektura eta beste tailer batzuetan izena ematea debekatua zeukaten. Arkitekturaren munduan garrantzitsua izan zen Bauhaus eskola, baita bertan parte hartu zuten emakumeak ere. Telesailak hala erakusten du hori; horregatik aukeratu dut. Baina egiari zor, seriea ez da bereziki ausarta, gai hori nahiko azaletik jorratzen duelako. Bertan azaltzen diren

emakume artisten inguruko tramak maitasun istorioen norabidea hartzen baitu, emakumeen jardun artistiko eta profesionala apur bat bazterrean utzita.

“ABSTRACT: THE ART OF DESIGN”

NETFLIX

Diseinatzaile berritzaileen adimenean murgiltzeko aukera izango duzu dokumental sorta honekin. Ilustrazioa, artea, diseinu grafikoa, argazkilaritza, arkitektura... diseinuaren gaia jorratzen du oro har, eta ez soilik arkitekturarena, baina mundu hori gustuko baduzu, ziur gozatuko duzula. Protagonista bakoitzaren esperientziatik eta bizitza pertsonaletik abiatuta, zenbait istorio ezagutuko dituzu zein baino zein mamitsua goak: Bjarke Ingels arkitekto daniarra; Christoph Niemann ilustratzaile alemaniarra; Ilse Crawford historialari, editore eta barne-diseinatzaile ingelese; Es Devlin artista eta diseinatzaile eszenografikoa eta Paula Scher diseinatzaile estatubatuarra, besteak beste. Pertsona horiek diseinatzaile gisa eta batez ere pertsona gisa ezagutzeko aukera paregabea da ekoizpen hau. Hasi eta amaitzen

diren istorioak izan arren, guztien itxura estetikoa eta horien arteko lotura asko zaindu direla nabari da, eta horrek bisualki jarraikortasuna ematen dio proiektu osoari.

“THE WORLD'S MOST EXTRAORDINARY HOMES”

NETFLIX

Izenburu hau aurrekoak baino askoz arinagoa eta sinpleagoa den arren, aproposa iruditzen zait egunerokoaz deskonektatzeko. Eduki mota aldetik, telebistako biki horiek egiten dituztenen zaku berean sartuko nukeen arren, honek askoz nortasun handiagoa duela uste dut eta bisualki landuagoa dago. Piers Taylor arkitekto sarituak eta Caroline Quentin aktoreak munduan zehar bidaiatuko dute muturrera eramandako arkitektura lanak ezagutzeko; izan leku bitxietan eraiki dituztelako, izan lan harrigarriak direlako. Aurkezleek era nahiko didaktikoan eta ariean azalduko dizkigute etxe bakoitzari buruz dituzten iritziak eta eraikuntzari zein diseinuari buruzko datu bitxiak. Elkarriketak ere egiten dizkiete arkitekto arduradunei.

